

Osasun asurantzzen aholku zerbitzua garatu da

Herritarrei osasun asurantzetan aholku emateko Actiom elkarteak hedatu da sei urtez • Zerbitzu osagarria egiten du gizarte-ekintza etxeetan

Iñaki Etxeleku Baiona

Duela sei urte abiatu zuten Ene herria, ene osasuna egitasmoa Actiom elkarteak bultzatzaileak. Osasun asurantz osagarririk gabe diren jendeek kontratu batzuen erdiestea da asmoa. Horretarako, herriko etxe partaiteak baditu elkarrekin, eta aholkulartza zerbitzua eskaintzen die herritarrei gizarte-ekintza zentroetan. Elkarrearen sortzaileetan dira Ipar Euskal Herriko Laurent Zaldubehere eta Nicolas Callier asurantz artekariak. Duela bost urte elkarriketatu zituen *Ipar Euskal Herriko Hitza*-k, eta geroztik garapen handia izan du Euskal Herrikan kanpo ere.

Artekariak dira biak; beraz, asurantz etxeekin kontratuak negoziatzen dituzte jendeek bermerik hoberekin bilatuz preziorik apalenean. Baina haratago doa haien zerbitzua, Callierrek dioenez: «Gaitasuna badugunez azterketa baten egiteko, gure helburua da jendeari aholkuak ematea. Anitzetan, jendearentzat biziki zaila da ulertzea asurantz etxearen eskaintza. Ez bagenu dugun objektibitatea, ez dut uste herriko etxeek konfiantza eginen

zigutenik». Aholku hori, ardurenean, baitezpadakoa dela uste du Zaldubeherek. Asurantz munda bortitza izan baitaiteke, kontratu berrien egiteko aztaparka ari direlako. «Segur da otso eremua dela. Jende anitzek –adinekoek bereziki–, deiak badituzte etengabe eskaintzekin. [Asurantz saltzaile] Batzuek, argiki, adinekoen helbide zerrendak erosten dituzte horretarako. Ikusi ditugu jendeak beldurtuak baitira orain telefonoan erantzuteko; badira kontratua telefonoz izenpeazten dutenak», erran du Zaldubeherek. Ez da baitezpada hobetuz joanen, abenduaren 30etik goiti indarrean jarriko den arau berriak kontratu hauste eta aldatzea baimenduko baitu urte osoan. Heldu duen urtetik goiti, asurantz etxe aldatzen ahalko da noiznahi. Orain arte, asurantz etxeak larrazken inguruan ari baziren deika, badaiteke urte osoan aritzea bezero arrantzan.

Actiomeko kideek diote ez dutela helburutzat absolutuki kontratu berri baten erdiestea jendearantzat. «Guk prezioak negoziatzen ditugu partaite ditugun asurantz etxeekin, baina, jendeak jadaneko duen kontratua ho-



Zerbitzua gizarte-ekintza zentroetan ematen du Actiomek, hala nola Baiona Iparreko honetan, Gaskoien plazan. I.E.



Baionako ospitaleko ohe bat, maitezean. Ospitalizazio bermeak lehenesten ditu Actiomek.
GUILLAUME FAUVEAU



ACTIONM ZENBAKITAN

bea bada, erraten diogu ez aldatzeko». Eta herritarrek eskaturik, urteko kontratua berriz aztertu dezakete sekula asurantzaz etxeak berme eta prezioak aldatu balitu. Gehiago dena, sei urtez, erreforma bat baino gehiago gertatu dira osagarri asurantzetan. De-

Herriko etxe partaideak

25. Ipar Euskal Herrian.
4.647. Frantziako Estatuan.

Lagundu herritarrek

1.800. Ipar Euskal Herrian.
30.000. Frantziako Estatuan.

nen segitzea neke baita, artekari-aldaketen esplikatzeari sartzan dute aholkularitza.

“%100 osasuna”

Azken erreforma, hain zuzen, %100 osasuna deitu dutena da. Indarrean da, eta 2021etik goiti

osasan asurantzaz osagarriek, beharturik, osoki beren gain hartuko dituzte zenbait artatze orain arte osoki ordaintzen ez zituztenak: hortz protesiak, hortzordeak, entzumen protesiak, begi lagunak. Artatze horiek administrazioak ezagutu labelen pean izan beharko dute osoki pagatuak izateko. «Argiki aitzinamendu

nola, noizbait gerta daitekeen ospitaleratze gastuen bermatzea. «Ospitaleratuak izateko bermeak ez dira baitezpada egokiak kontratuetan. Erreforma berriekin, haatik, badakigu hortzentzat eta bistarentzat berme onak segurtu daitezkeela», dio Callierrek.

Osasan asurantzaren alorrean jendeak haizu duen gauza oro jakinaraztea bilatzen dute, kontratu egokiak aurkitzeaz gain. Beste adibide bat eman du Zaldubeherek: *Evin legea* dioena erretretara doazentzat. «Asurantzaz etxe guztiak behartuak dira langileak zuen kontratuaren jarraipena proposatzea erretretara doalarik. Eta lehen bizpahiru urteetan, prezioak ez du mugitu behar. Ikusten dugu badirela merkatuan betekizuna eta *Evin legea* errespetatzen ez dutenak».



«Segur da otso eremua dela. Jende anitzek, adinekoek bereziki, deiak badituzte etengabe eskaintzekin»

Laurent Zaldubehere
Osasan-asurantzaz artekaria



«Prezioak negoziatzen ditugu asurantzekin, baina, jendeak kontratu hobea badu, erraten diogu ez aldatzeko»

Nicolas Callier
Osasan-asurantzaz artekaria

bat da diru iturri ttipiko jendeentzat», dio Zaldubeherek, «horra arte ez baitzuten horien ordaintzeko ahalik». Erreforma hori ez da hain ezaguna. «Asurantzaz etxeek ez dute baitezpada interesik jakin dadin. Ofizioko artatzaileek ere ez», salatu du Zaldubeherek. Actiomek lagundu dituen kide guzietan informazioa zabaldu die, jakin dezaten zeren zuzena duten. Callier: «Ukan ditzaketen hobekuntzak esplikatu dizkiegu, maiz ez baita argiki esplikatua».

Lagundu bakoitzari funtsezkoen zaizkien lehentasunen finantzea dute xede bi artekariak, hala

Laguntza sozialen osagarri

Informazioaren hedadura azkartzeko, Actiomek formazioak emanen dizkie laster Gizarte Ekintzarako Herri Zentroko langileei. «Baionako gizarte-ekintza zentroan, besteak beste, langile taldeari esplikatu dizkiegu plantan diren erreforma guztiak», erran du Callierrek. Gizarte aholkulariak ez baitira bortzaz osasan asurantzetan berezituak.

Arrakasta izan du sei urtez herriko etxe berriekiko partaidea, eta Actiom elkarte bera garatu da. Harrera zerbitzuak atxiki dituzte partaidea diren herrietan, baina jendeak deitu dezake telefonoz ere aholku eskatzeko. Horretarako, lantalde bat azpikontratatu du elkarteak. Ipar Euskal Herrian ez da baitezpada emendatu Actiomen zerbitzua eskatzen duten herrien kopurua, elkarteak ez baita ibiltzen gibeletik. Hiru herriko etxe berri hurbildu zaizkie aurren. «Erakusten du egiten dugunak zerbait ekarri duela», dio Callierrek; «hala ez balitz, ez genuen irauten. «Aski harro gara sei urtez egin dugunaz», gehitu du Zaldubeherek.

Europako hondakinen murrizketaren aldeko astea

ASTE HONETAKO ABILEZIAK

Bota aitzin ordez, nere objektuak konpontzen ditut !



Erosi baino, alokatzea edo prestatzea nahiago.



Nere produktuak nahas mahas erosten ditut, paketatua baino.



Kolakia eskatzen dut biltagarbi.eus-en



Murrizketa jestu guztiak aurki itzazu: biltagarbi.fr edo communauteypaysbasque.fr